

## Kapitulua gida didaktikoa

### Esposizioaren kalkulua

Argazkilaritzan zilar gatzak betidanik erabili badira ere, prozesatzeko moduak asko aldatu dira historian zehar. Niepcek erabiltzen zituen plakek zortzi ordutik gorako esposizioa behar izaten zuten irudi bat finkatzeko.

Argazki bat egiterakoan, zenbat denborako esposizioa beharko dugun jakiteko, bi gauza eduki behar dira kontuan: erabiliko dugun negatiboaren sentikortasuna eta subjektua argitzen duen argiaren kalitatea.

Nola kalkulatu, ordea, behar den esposizio denbora? Horixe erakusten da bideoan. Lantegia izendatu dugun atalean, argazki kameraren fidagarritasuna eta erantzuna ezagutzeko oinarritzko aproba batzuk nola egin erakusten da.

02:42 - Lehen emultsioak (SARRERA)

### Esposizioaren kalkulua

05:16- Fotometroa

06:32- Fotometro eramangarria

07:41- Argazki kameraren fotometroa

10:01- Fotometro motak

Argi islatua neurtzen duen fotometroa

Uneko fotometroa

Argi erasotzailea neurtzen duen fotometroa

12:56 - Esposizio denboraren irakurketa

13:42 - Amarruak

Kontrastea

Atzealde zabalak

Mugimendua duten argazkiak

17:09 - LANTEGIA: Lehenengo praktikak argazki kamerarekin

### LANTEGIA: Lehenengo praktikak argazki kamerarekin

Lantegia deitu dugun atala ikusi. Jarraian, egin nahi ditugun argazkien gainean hausnarketa egin. Ariketa egiteko, ikasleak taldetan banatzea komeni da, talde bakoitza argazkilari talde gisa ari dadin.

Erabiliko ditugun materialak:

argazki kamera eta pelikula negatiboa.

Obturadorearen lastertasuna frogatzeko hiru argazki egingo ditugu:

A1: 1/250 s.

A2: 1/125 s.

A3: 1/60 s.

Ikus eremuaren sakontasuna frogatzeko hiru argazki egingo ditugu:

A1: diafragma zeharo irekita

A2: f8

A3: diafragma zeharo itxita

Argazkiko elementua mugitzen ari dela, lau argazki egingo ditugu:

A1: obturadorea lastertasunik handienera jarrita

A2: 1/8 s.

A3: 1/1 s.

A4: 1/8 eta panoramika.

### ARGAZKILARITZAREN HISTORIA.

Bideo bakoitzaren sarreran, argazkilaritzaren munduan izan diren gertakari eta aurkikuntza aipagarrienak adierazten dira. Atal honetan aipatzen diren datuen bidez, argazkilaritzaren historia laburra kontatu nahi da.

Historia osatzeko, gida didaktikoetan ematen diren datuak koaderno batera aldatzea komeni da; horrela, seriearen ikustaldia bukatzean, gertakarien koadroa erabat osatua izango dugu.

#### **Lehen emultsioak:**

.- 1850 eta 1860 urteen bitartean eginiko emultsioek 2 ISOko sentikortasuna zeukaten.

.- 1871n, Joseph Wilson Swan beroak zilar bromuroaren sentikortasuna handitu egiten zuela konturatu zen, eta 1879an, zilar bromuroz emultsionatutako paper lehorra patentatu zuen.

**Fotometroa.** Eszena edo pertsonaia batenganaino iristen den argi kantitatea neurtzen lagunduko digun lanabes elektronikoa.

**Argi erasotzailea neurtzeko fotometroa.** Eszenara iristen den argi kantitatea neurtzen laguntzen duen fotometroa.

**Argi islatua neurtzeko fotometroa.** Eszenak islatzen duen argi kantitatea neurtzen laguntzen duen fotometroa.

**Uneko fotometroa.** Eszena bateko gune txiki batera iristen den argi kantitatea neurtzen laguntzen duen fotometroa.

## LIBURUAK

**La fotografía paso a paso.** Michel Langford.  
H. Blume Ediciones. -Madril- 1995

*Hauxe duzu eskuetan erabiltzeko libururik osoena eta ulerterrazena.*

**Macrofotografía.** W. Kruyt.  
**Retrato creativo.** P. Zeemeijer.  
**Técnica fotográfica.** W. Broekmyn.  
Parramón institutua. -Bartzelona- 1990.

*Hiru liburu hauek, batez ere, praktikoak dira. Eurretan adibide ugari aurkituko dituzu gai bakoitza jorratzeko.*

## Seriea osatzen duten bideoak

- 1.- Argazkilaritzaren oinarriak
- 2.- Argazki kamera
- 3.- Pelikula
- 4.- Esposizioaren kalkulua
- 5.- Irudiaren osagarriak
- 6.- Irudiaren egitura
- 7.- Konposaketaren artea
- 8.- Koloretako irudia
- 9.- Tresneria
- 10.-Argiztapen artifiziala
- 11.-Kamera sortzailea
- 12.-Argazkilaritza digitala

### ekoizlea:



### Banatzaila:



M. Ortiz de Urbina pintorea, 3  
11. bulegoa  
01008-Gasteiz  
Tel-faxa: 945200608

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILAK  
ONETSIA

2002-11-28